

NAFAR-LAPURTERA

...

Montse Marin 3A

ZER DA?

Iparraldeko euskalkia da,
Lapurdin, Nafarroa
Beherean, Nafarroa Garaiko
Luzaide ibarrean eta
Zuberoako
ipar-mendebaleko zenbait
udalerritan hitz egiten da.



EZAUGARRIAK

FONETIKA

- “i” bokalak ez du bustidurarik eragiten eta il, in eta it bere horretan esaten dira gehienetan: ‘gainetik’ (eta ez ‘gañetik’), ‘botila’ (eta ez ‘botilla’)..
- Hitz hasiera ‘X’ esaten da (beste euskalki batzuetako ‘TX’-ren ordeaz): ‘ximino’ (‘tximino’), ‘xirula’ (‘txirula’)..
- Erdarako -on amaiera -oin egiteko joera egon da: ‘arrazoina’ (‘arrazoia’), ‘botoina’ (‘botoia’)..

MORFOLOGIA

-Izenordainetan ‘nehor’ (‘inor’ adierazteko) egiturakoak erabiltzen dira: ‘nehor’ (‘inori’), ‘nehun’ (‘inon’)..

-Deklinabidean ‘norekin’ eta ‘norekilar’ erabiltzen dira.

-Lekuzko kasuetan ‘nora’ eta ‘norat’ erabiltzen da

ADITZA

- Aginteran eta ahaleran aditz oina gordetzen da: ‘etor hadi’, ‘erabil daiteke’...
- Euskara nafarrak bezala, aspektu-gertakizuna eratzeko -en eta -ko erabiltzen ditu: ‘izanen’, ‘egonen’...
- Aspektu burutugabea adierazteko -iten egiten du: ‘erraiten’, ‘egoiten’...

SINTAXIA

-Nominalizazioak: ‘lagunenen ikustera noa’ (= ‘lagunak ikustera noa’)

-Galde-perpauzak: bai/ez erako galderetan zenbaitetan aditz laguntzaileari -a itsasten zaio, horrela, ‘etorri dea?’ (= ‘etorri da+a?’)

LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE

Erregeren adbokatu bidezko eta nobleari,
birthute eta hon guziez konplituari
bere jaun eta jabe Bernard Leheteri,
Bernard Etxeparekoak,
haren zerbitzari xipiak,
gogo honez gorainzi, bake eta osagarri.

Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago, jauna, nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propriaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera, zeren ladin publiko mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik, ezein reputazione bage, eta berze nazione orok uste dute ezin deus ere eskriba daiteiela lengoaje hartan, nola berze orok baitute eskribatzen berian.

Eta zeren orai zuk, jauna, noble eta naturazkoak bezala, baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara, zuri, neure jaun eta jabia bezala, igorten darauritzut heuskarazko koplak batzuek ene ignoranziaren araura eginak. Zeren, jauna, haiek ikhusirik eta korregiturik plazer duzun bezala, irudi bazautzu, inprimi erazi ditzazun eta zure eskutik orok dugun joia ederra. inprimiturik heuskara, orano izan eztena, eta zure hatse honetik dadin aitzinerat augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraitzeko materia, eta jinen direnek gero duten kausa oboro haren abanzatzeko eta obligatu giren guziak Jeinkoari othoiz egitera, dizun mundu honetan prosperoki bizia eta berzian parabizua. Amen.